



2026ko urtarrilaren 26tik 30era, Iruñean
Galtzagorri elkarte
galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus
943 471 487

BIKO TEKA 2026

Liburu grafikoetarako ilustrazio eta narraziogintza tailerra Aitziber Alonso eta Harkaitz Cano

ZER:

Liburu ilustratu bat nola pentsatu, idatzi, sekuentziatu, marraztu eta argitaratu daitekeen landuko da lau egun eta erdiko ikastaro trinko honetan.

- Zein da liburu ilustratu baten abiapuntua?
- Nola eraikitzen da pertsonaia bat irudiz eta nola hitzez?
- Zein dira arketipoak eta nola funtzionatzen dute?
- Nola sekuentziatzen da istorio bat?
- Nola atera dakioke ahalik eta etekinik gehien irudizko lengoaiari, hitzek diotena literalki ilustratu beharrean istorioari dimentsio berri bat emateko?
- Zein esperientzia literario eskaini nahi diogu irakurleari?
- Nola funtzionatzen du gurean album ilustratuen edizioaren munduak?

Idazle-ilustratzaileak bikoteka jarri eta modu praktikoan nork bere lanera bideratutako erabakiak hartzen laguntzea da Aitziber Alonso ilustratzaileak eta Harkaitz Cano idazleak koordinatuko duten tailer honen helburua.

Uxue Razkin editorearen (Erein) eta Maite Caballero eta Maite Gurrutxaga sortzaileen (Tupust! kolektiboa) eskutik liburu grafikoaren edizioaren alderdi ezberdinak ezagutuko ditugu. Bere argitaletxean plazaratzen dituen albumen ezaugarriez eta lan egiteko moldeez arituko da bata; Tupust! Egile kolektiboaren funtzionamenduaz eta komiki-liburuen autoekoizpenaz, besteak.

IRAKASLEAK:

Aitziber Alonso. Ilustratzailea.
Harkaitz Cano. Idazlea.

HIZLARI GONBIDATUAK:

Uxue Razkin. Erein argitaletxeko zuzendari editoriala.
Maite Caballero eta Maite Gurrutxaga. Tupust! Kolektiboko kideak eta ilustratzaileak.

METODOLOGIA:

BIKO

TEKA tailerraren xede nagusia euskarazko liburu grafiko edo album ilustratu berriak sortzeko akuilu izatea da. Baita idazle eta ilustratzaileek elkar ezagutu eta elkarrekin liburu grafiko bat abiatzeko dinamiken jabe egitea ere. Horregatik, tailer honen emaitza gisa, parte hartzen duen bikote bakoitzak album ilustratu baten proiektua abiatuko du. Tailerra bukatu eta hiru hilabetez, irakasleek segimendua eskainiko diete e-postaz hala nahi duten ikasleei, garatzen ari diren album proiektuaren inguruan.

Tailerrean zehar ariketa praktikoak azalpen teorikoekin tartekatuko dira. Eta horrez gain, film, musika, irudi eta liburuak ere erakutsiko dira.

Ikasleek, zenbait saiotan, lantzen ari diren gaiekin lotutako testu eta irudiak sortuko dituzte, ariketa modura.

NORENTZAT:

Gehienez irudigile eta idazle banak osatutako 8 bikotek parte hartuko dute.

Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Idazle eta ilustratzaileek parte hartu dezakete, bakarka zein binaka. Bakarka aurkezten direnei bikotea aurkituko diegu, posible den heinean.
- Parte-hartzaileek ez dute zertan lan argitaraturik izan behar eta aurkezten diren hautagaien artean egile berriak lehenetsiko dira.
- Parte-hartzaileek euskaraz jakin behar dute.
- Galtzagorri elkarteko bazkide izatea aintzat hartuko da.

ESKAINZA ETA KONPROMISOAK:

Tailer honetako prestakuntza jasotzeko beka bana eskainiko zaie aukeratuak diren 16 lagunei (8 bikoteei).

Lau egun eta erdiz, 37 orduko tailer praktikoa egin ahal izango dute. Ordu horien barruan, hiru orduz euskal liburu grafikoaren alorrean lan egiten duten editoreekin eta egileekin solasteko aukera izango dute.

Asistentzia derrigorrezkoa da: hautatutako parte-hartzaileek tailerraren saio guztietara joateko konpromisoa hartu beharko dute.

BIKO-TEKA tailerrean abiatu eta gerora argitaratzen diren album edo liburu grafikoetan BIKO-TEKA egitasmoari aipamena egiteko konpromisoa ere eskatuko zaie formazio beka hau jasotzeko aukeratutako bikoteei.

NOIZ ETA NON:

2026ko urtarrilaren 26tik 30era, Iruñeko Kondestable Jauregian: Kale Nagusia, 2. 31001 Iruñea.

Lehenengo lau egunetan, egun osoz: 9:00etatik 14:00etara (ordu erdiko atsedinarekin) eta 15:30etatik 18:30etara. Azken egunean, ostiralean, goizez bakarrik: 9:00etatik 14:00etara.

IZEN-EMATEA:

- Ilustratzaile bakoitzak 3 ilustrazio bidali beharko ditu: 3 ilustrazio horiek proiektu berekoak izan behar dute, irudi-kate bat osatuz. Eta argitaratuak egon daitezke edo ez.
- Idazle bakoitzak testu labur bat bidali beharko du: argitaratua edo ez, bere ustetan bere lana hobekien islatzen duen idazlana. Gehienez ere orrialde bateko luzera izan behar du.
- Bikotean aurkezten direnek bere proiektuaren zirriborro bat bidali beharko dute.
- Horrez gain, honako dokumentazioa igorri beharko dute e-mailez administrazioa@ibby-galtzagorri.eus helbidera:
 - Curriculum
 - NANaren kopia bat
 - Posta elektronikoaren helbidea
 - Telefono zenbakia

EPEAK:

Eskaerak aurkezteko azken eguna: **2025eko abenduaren 5a** izango da.

Aukeratutakoei 2025eko abenduaren 15eko astean erantzungo zaie.

ANTOLATZAILEAK:

Iruñeko Udala.

Galtzagorri elkarte.

LAGUNTZAILEAK:

Haurrentzako Album ilustratuak sortzeko Etxepare Saria.

Nafarroako Gobernua.

INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK:

Galtzagorri elkarte / www.ibbygaltzagorri.eus
galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus / 943 471 487